

# Euskadiko gazteei buruzko datu estatistikoaren analisia

2012ko azaroa - Abendua



## EAEko gazteen % 14 atzerritarrak dira

[Estatistika Institutu Nazionalak](#) (INE) emandako datuen arabera, EAEn 2011n 44 559 atzerritar gazte bizi ziren. Horrek 15 eta 29 urte bitarteko gazte guztien (318 887) % 14 suposatzen du.

Atzerritar gazteen kopurua izugarri igo da EAEn, 1991n 2653 izatetik 2011n 44 559 izatera handitu baita, hau da, gehikuntza % 1000koa baino handiagoa izan da.


Gainera, goranzko joera horri krisi ekonomikoaren garaian ere eutsi egin zaio, hau da, 2008tik 2011ra (39 588 eta 44 559 atzerritar gazte, hurrenez hurren). Espainiako estatuan, aldiz, atzerritar gazteen kopurua txikitu egin da epe horretan: 2008an 1 562 566 izatetik 2011n 1 466 774 izatera jaitsi da.

2011ko datuetan jarriko dugu arreta orain. EAEko atzerritar gazteen artean, gizonak (22 560) % 51 dira, eta emakumeak (21 999) % 49 dira.

Atzerritar gazte horien banaketa, adinaren arabera, honako hau izan da: 15 eta 19 urte bitarteko gazteak % 19 dira (8319); 20 eta 24 urte bitartekoak, % 32 (14 160); eta 25 eta 29 urte bitartekoak, % 49 (22 080).

Atzerriko gazte gehien duen lurraldea Bizkaia da: 22 795 bizi dira bertan (% 51). Gipuzkoan 13 098 bizi dira (% 30) eta Araban 8666 (% 19).

**15-29 URTE BITARTEKO GAZTE ATZERRITARRAK, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (ZENBAKI ABSOLUTUAK)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, INEren (2011) datuak oinarri hartuta*


Nahiz eta, kopuru absolutuen arabera, atzerritar gazte gutxiago bizi Araban, herrialde horretan dute pisu handien gazte atzerritarrek gazteria osoaren baitan (% 18). Gipuzkoan, atzerritar gazteak gazte guztien % 13 dira eta Bizkaian % 14.

Bestalde, gazteria-indizea, hau da, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen biztanleria jakin batean osatzen duten ehunekoa, % 30,7koa da EAEko gazte atzerritarren artean. Balio hori EAEko biztanleria osoarenaren halako bi da, kasu horretan gazteria-indizea % 14,6koa da eta.

Hori dela-eta, esan dezakegu kultura-aniztasunak dakarren aberastasunaz gainera, atzerriko biztanleak funtsezkoak direla EAEko biztanleriaren piramidearen zahartze-prozesua konpentsatzeko eta dakartzan gizarte- eta ekonomia-ondorioak arintzeko.

Atzerritar gazteen indizerik altuena Bizkaian dago (% 31,5); ondoren, Araban (% 30,1) eta, azkenik, Gipuzkoan (% 29,6).


**BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN ETA  
BIZTANLERIA OSOAREN GAZTERIA INDIZEEN  
ERKAKETA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, INEren (2011) datuak oinarri hartuta*

Jatorriari dagokionez, EAEn bizi diren atzerriko gazteen erdiak (% 46) Ameriketatik etorri dira; % 24 Europatik; % 23 Afrikarik eta % 7 Asiatik.

**ATZERRIKO GAZTEEN JATORRIA**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, INEren (2011) datuak oinarri hartuta*

Datu hauek [Gazteen Euskal Behatokiak](#) ustiatu eta aztertu egin ditu.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**




## Abenduaren 10a: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren urteurrena

### ***Euskadiko gazteak ez daude pozik lanerako eta etxebizitza duinerako eskubideen betetze-mailarekin.***


2010ean, EAEko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 36 oso edo nahiko pozik zeuden etxebizitza duinerako eskubidearen betetze-mailarekin eta % 32 lanerako eskubidea eskuratzeko mailarekin.

2012an, oinarrizko eskubide horiekin pozik dauden gazteen bolumen eskasak maila berean dirau.

Izan ere, harrezkero, EAEko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasak igo egin dira (2010eko % 18,4tik 2012ko hirugarren hiruhilekoko % 22,6ra). Lanerako eskubidearen erdieste-mailarekin pozik dauden gazteen ehunekoak puntu bat egin du behera: % 31n kokatuta dago. Aldi berean, batere pozik ez daudenen ehunekoak gora egin du, % 17tik % 25era.



Bestetik, Etxebizitzako Behatokiak higiezinaren eskaintzari buruz kaleratu dituen datuen arabera, azken bi urteotan, EAEn, etxebizitza librearen kostua m2-ko (etxebizitza berria nahiz bigarren eskukoa) 200 € inguru jaitsi da. Era berean, alokairu librearen batez besteko errentak ere jaitsi egin dira, hileko 40 € baino gehixeago, hain zuzen ere. Etxebizitza merketzeak nolabaiteko eragina izan lezake etxebizitza duinerako eskubidea betetzeko mailarekin pozik daudenen ehunekoa altuxeagoa izatean: 2010ean, % 36 pozik edo oso pozik zeuden eskubide horrekin eta, gaur egun, % 41. Nolanahi ere, banku-kredituak eskuratzeko zailtasunek eta hipoteka ez ordaintzeagatik egondako kaleratze-kopuruak handitu izanak eragotzi dute poztasunak gehiengo osatzea eta, era berean, ez dute batere pozik ez daudenen ehunekoa murriztu: 2010ean % 19 ziren eta 2012an % 20.



EAEko 18 urtekoak eta nagusiagoak aintzat hartuz gero, zera ikus dezakegu: pozik daudela diotenak ez direla gehienak, baina gehixeago dira gazteak bakarrik kontuan hartuta baino. Zehazki, 18 urtekoen eta nagusiagoen artean, % 45 oso edo nahiko pozik daude etxebizitza duinerako eskubidearen betetze-mailarekin eta % 35 lanerako eskubidearen erdieste-mailarekin.

Horrenbestez, beharrezkoa da alderdi horietan ahaleginak eta baliabideak areagotzea, biztanle guztiek eta, bereziki, gazteek, etxebizitza eta lana eskuratzeko erraztasun handiagoak izan ditzaten eta, hartara, eskubide horien betetze-mailarekin pozik daudenen ehunekoak igo dadin.

[Gazteen Euskal Behatokiak](#) hainbat iturritatik eskuratu ditu datuok eta aztertu. Oinarritzko hainbat eskubideren betetze-mailarekin dagoen gogobetetze-mailaren ehunekoak Eusko Jaurlaritzako [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) egindako bi azterlanetatik hartu dira: [Kultura demokratikoa, 2010](#) eta [Kultura demokratikoa, 2012](#). Gazteen langabezia-mailari buruzko datuak EUSTATEk kalkulatu ditu, BJA (Biztanleria Jardueraren Arabera) inkestan, Gazteen Euskal Behatokiak espres egindako eskari bati erantzunda. Etxebizitzari buruzko datuak, azkenik, [Etxebizitzako Behatokiak](#) higiezinen eskaintzari buruz kaleratzen dituen azterlanetatik atera dira. Analisi honetarako, 2010eko hirugarren hiruhilekoko datuak 2012ko hirugarren hiruhilekokoekin alderatu dira.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**




## EAEko 16 eta 24 urte bitarteko hamar gaztetatik sei elebidunak dira

### *Euskararen ezagutzaren eta erabileraren ehunekoek duela hogeit hamar urtekoak bikoiztu egin dituzte gazteen artean*

EAEko 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 59,7 elebidunak dira (ondo hitz egiten dute euskaraz zein gaztelaniaz), % 23,2 elebidun hartzaitzat jo ditzakegu (hau da, euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzte, baina ulertu, ondo ulertzen dute) eta gainontzeko % 17 erdaldunak dira (ez dakite euskaraz hitz egiten).

Hori dio Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2011n egindako [V. Inkesta Soziolinguistikoak](#).

[Aurreko lau inkestak](#) kontuan hartuz gero, ikus dezakegu gazte elebidunen ehunekoak goranzko joera izan duela EAEn azken hogeit hamar urteotan.



Hori da hizkuntza-gaitasunari dagokiona, baina jarraian euskararen erabilerari erreparatuko diogu.

Adin tarte horretako gazte guztien % 26,8k euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dute. Ehuneko hori ere nabarmen handitu da azken urteetan, 1991n % 12,4koa baitzen eta, 2001ean, % 18,9koa.

Baina horren arrazoia hau da: hogeit hamar urte horietan nabarmen handitu dela euskararen ezagutza, ikusi dugunez, eta horrek euskara gehiago erabili ahal izateko bidea ematen duela.

Horregatik, gazteria osoari dagozkion datuak ez ezik, elebidunei bakarrik dagozkienak ere aztertuko ditugu. Hartara, zera ikus dezakegu: gazte elebidunen % 44,8k euskara gaztelania adina edo gehiago erabiltzen dutela. Ehuneko horrek ez du joera linealik izan: jaitsi egin da 1991tik (% 48,4) baina igo egin da 2001eko datuekin alderatuz gero (% 38,4).

Hau da, gazte guztien artean euskararen erabilera handitu da, baina, elebidunak bakarrik kontuan hartuta, antzematen da horien erabilera ez dela handitu.

Dena dela, gure gizartean gaztelaniak duen nagusitasuna ikusita, ez da makala erabileran, euskara gaztelaniaren aurrean edo, gutxienez, gaztelaniaren parean jartzen duten gazteen ehuneko hori.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**



## EAEko hamar pertsona gaztetatik batek gaixotasun kronikoa edo ezintasuna duela dio

2012ko martxoan 15 eta 29 urte bitarteko 1500 pertsoneri egindako inkesta baten emaitzen arabera, EAEko gazteen % 9k gaixotasun kronikoa edo ezintasuna dute. Ikerketa horren diseinua eta ondoko azterketa [Gazteen Euskal Behatokiak](#) egin ditu.


Gaixotasun kronikoak edo ezintasunak dituzten gazteen proportzioa handiagoa da 25 eta 29 urte bitartekoen artean (% 11), 15 eta 19 urte bitartekoengan (% 8) edota 20 eta 24 urte bitartekoen taldean (% 7) baino. Ez da alderik nabaritzen sexuaren arabera.

Nolakotzat jotzen dute pertsona hauek beraien osasuna? Gaixotasun edo ezintasun hauek eragozten diete eguneroko jarduera arruntak egitea, hala nola, kirola egitea?

Gaixotasun kroniko edo ezintasunaren bat duten pertsona gazte gehienek (% 76) beraien osasuna ona dela uste dute; baina balorazio hori horrelako gaixotasunik ez duten gazteenarekin alderatuz gero (kasu honetan % 90 dira ontzat jotzen dutenak), ikus dezakegu ez dela bestea bezain positiboa.

Nahiz eta gaixotasuna edo ezintasuna izan, % 76k bizitza aktiboa dutela esan dute. Ehuneko hori gaixotasun kronikorik edo ezintasunik ez duten gazteena baino pixka bat txikiagoa da (% 82).

Erdiek baino gehiagok (% 58) kirola gutxienez astean behin egiten dutela adierazi dute. Eta, zehatzago, % 29k astean hiru alditan edo gehiagotan egiten dutela diote. Gaixotasun kronikorik edo ezintasunik ez duten gazteen kasuan, gehiago dira astean hirutan edo gehiagotan kirola egiten dutenak (% 41), baina gutxienez astean behin egiten duten gazte guztiak kontuan harturik (% 65) aldea ez da hain handia talde bien artean.





Azkenik, adieraziko dugu ezintasuna edo gaixotasun kronikoa duten hiru gaztetatik bi pozik daudela beraien egoera pertsonalarekin (% 65) eta, gaur egun bitza nola doakien galdetuta, 7,2 puntu ematen diotela beraien bizitzari, 0 eta 10 puntu bitarteko eskalan.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**



## 2011n, 45 GIB infekzio berri egon ziren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean

***Biztanleria osoaren infekzio berrien % 26, hain zuzen ere***

Abenduaren 1a **HIESaren aurkako Borrokaren Mundu Eguna** dela-eta, [Eusko Jaurlaritzako Hiesaren Planak](#) GIBaren infekzio berriei buruz emandako datuak aztertu ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#).


Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak GIBari buruzko datu epidemiologikoak —infekzioa diagnostikatuta duten lagunen kopuruaren datuak— ditu 2007tik aurrera. Erregistro horri esker, zera egiaztatu ahal izan da: azken urteotan HIES kasuek behera egin duten arren, GIB kasuek ez dutela joera bera eta egonkor jarraitzen dutela, gorakada eta beherakada arinez. Kasu berriak, guztira, 200 inguru izaten dira urtean.

Datu horien arabera, GIBaren 174 diagnostiko berri erregistratu ziren EAEn, 2011n. Infekzio berri horien % 77,6 gizonei dagozkie, eta diagnostikatutako lagunen batez besteko adina 37,4 urte da.

2011n infektatutako 174 lagunetatik, 45ek 15 eta 29 urte bitarteko adina dute. Horrek esan nahi du infekzio berrien % 25,9 gazteen artean antzeman direla. GIB infekzioa duten gazteen tasa 0,14 da, adin-talde bereko 1000 laguneko.

Biztanleria osoarekin gertatzen den bezala, GIB infekzio berrien joera nahiko egonkorra da, gorakada eta beherakada arinak ditu, eta, duela hamarkada batetik hona, ez dira 55 kasuak gainditzen.

**EAEn, GIBaz infektatutako 15 eta 29 urte bitarteko lagun-kopuruaren bilakaera (2000-2011)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzako HIESaren Planeko datuak oinarri hartuta*

[Gazteen Euskal Behatokiaren estatistiketan](#) osasunari eskaintzen zaion atalean, 2000tik 2010era bitarteko GIB infekzio berriei dagozkien datuak aurki daitezke, adin-taldean eta lurralde historikoen arabera.

## Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!



GIB/HIESari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, [Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren webgunean](#) aurkituko duzu. Gainera, HIESari buruz eguneroko prentsan agertzen diren albiste guztiak astean behin jaso ditzakezu zure posta elektronikoan, [Sidamedia](#) doako buletinean izena emanda.

## EAEko gazteen % 7k borondatezko lanak egiten dituzte


### *Eta ia laurdenak eskarmentua du borondatezko lanetan*

EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 7k borondatezko lanak egiten dituztela diote. Talde horri gehitzen badiogu egun ez baina lehen horrelako lanak egin izan dituztela diotenena (% 16), ondoriozta dezakegu ia gazteen laurdenak (% 23) eskarmentua duela borondatezko lanetan.

Datuok duela lau urtekoekin alderatuz gero, ikus dezakegu zifrak pixka bat handitu direla: 2008an % 6k zioten borondatezko lanak egiten zituztela eta % 20k eskarmentua zeukatela horrelakoetan.

Neskek mutilek baino neurri handiagoan egiten dituzte borondatezko lanak (% 8 eta % 5, hurrenez hurren). Borondatezko lanetan eskarmentua izateari erreparatzen badiogu, batzuen eta besteen arteko aldeak are handiagoak dira, nesken % 28k eta mutilen % 18k egin izan baitituzte noizbait horrelako lanak.

20 eta 24 urte bitarteko gazteak dira borondatezko lanetan neurri handienean parte hartzen dutenak.



Bukatzeko, ageri utziko dugu borondatezko lanak egiten dituztela gehien diotenak Gipuzkoako gazteak direla (% 9) eta gutxien diotenak Bizkaikoak (% 5).

Datu hauek 2012ko martxoan EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteei egindako inkesta baten emaitzak dira. Inkesta hori [Gazteen Euskal Behatokiak](#) burutu zuen.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**




## Gazteek enplegua sortzea eskatzen diote nagusiki Eusko Jaurlaritza berriari


EAEko gazteek enplegu-sorkuntza sustatzea eskatzen diote Eusko Jaurlaritza berriari, nagusiki (horixe eskatzen dute EAEko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 70ek). Horren atzetik, osasun-prestazioei eta zerbitzuei (% 49), hezkuntza-sistemaren kalitateari (% 45), gizarte-laguntza eta -zerbitzuei (% 27) eustea, eta etxebizitza eskuratzea erraztu dezala (% 25) eskatzen diote.

Horixe dio Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren mendeko [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) kaleratutako azken [Euskal Soziometroak](#). Txosten hori 2012ko urrian egindako inkesta batean oinarritzen da eta [Gazteen Euskal Behatokiak](#) EAEko 18 eta 29 urte bitarteko gazteek emandako erantzunak aztertu eta gero azaltzen ditu datu hauek.

Enplegu-sorkuntza bultzatzeko eskari hori ez da harritzekoa. Izan ere, gazteen hiru laurdenek uste dute EAEko egoera ekonomikoa txarra edo oso txarra dela. Ikuspegi negatibo horrek goranzko joera izan du: azken bost urteotan erregistratutako balioak irauli ere egin ditu. Garai hartan, gazteen % 72ren ustez, Euskadiko egoera ekonomikoa ona edo oso ona zen. 2012an, ordea, ehuneko berberak (% 72) uste du txarra edo oso txarra dela.



EAEko arazorik nagusienak zein diren galdetuta, 2012an, lau gaztetatik hiruk lan-merkatuari lotutakoak aipatu dituzte (22 puntu gora 2007an baino) eta jarraian, arazo ekonomikoak (% 5, 2007an eta % 39, 2012an). 2007an etxebizitza zen EAEko arazorik nagusiena (% 68), gazteen iritziz; 2012an laugarren arazo bilakatu da (EAEko gazteen % 17k aipatu baitute).



Gazteen arazo pertsonalei bagagozkie, lan-merkatuari lotutako kezkak eta arazo ekonomikoak dira nagusi. Areago, bi aukera horiek nabarmen areagotu dira azken bost urteotan: lan-merkatuari lotutako kezkak aipatzen dituztenak % 49 ziren 2007an eta 2012an, aldiz, % 71 dira; arazo ekonomikoak aipatu dituztenen ehunekoa % 14tik % 32ra igo da azken bost urteotan.

Gazteen erdiek ia (% 48) aitortu dutenez, eurek zein etxeko kideren batek lana galdu dute azken urteotan; % 43k diotenez, soldata-murrizketak izan dituzte.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**



## Zer deritze gazteriak bikotearen barruko tratu txarrei?

### ***Datuek adierazten dutenez, gora egin du nabarmen edozein tratu txar oso larritzat jotzen duten gazteen ehunekoak***

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) gogorarazi nahi du bere [Estatistiken](#) artean genero indarkeria jasan duten emakume gazteei buruzko datuak dituela. Eusko Jaurlaritzaren Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak emandako datu horien arabera, [2011n, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko mila emakumetatik 7k genero indarkeria jasan zutela salatu zuten.](#)


Baina Gazteen Euskal Behatokitik gehiago sakondu nahi dugu gai horretan, eta, horretarako, EAEko gazteek, gizonak eta emakumeek, bikotearen barruko tratu txarrak aipatzen direnean zer ulertzen duten eta tratu txarrei lotutako hainbat jarduerari nolako larritasun-maila egozten dieten aztertu dugu.

Proposatutako hainbat egoerari gazteek egotzitako larritasun-maila zein den eta azken urteotan larritasun-maila hori areagotu egin den aztertzeko, [duela hamabost urte](#) landutako galdera batzuk errepikatu egin dira 2012ko martxoan EAEko 18 eta 29 urte bitarteko 1233 gazteri egindako inkesta batean.

Bikotekidea bere borondarearen kontra sexu harremanak izatera behartzea, etxetik irtetea debekatzea edota mehatxatzea oso tratu txar larritzat jo dute EAEko gazteen % 80k baino gehiagok. Ia hiru gaztetatik bik mespretxuak egitea ere oso larria dela uste dute. Gazteen erdiek oso larria deritzote gauzak erabakitzen ez uztea. Era berean, ia erdiak dira bikotekidea iraintzea oso tratu txar larritzat jo dutenak.


EAE-KO GAZTEEK HAINBAT TRATU TXAR MOTARI EMANDAKO LARRITASUN MAILA						
<i>Tratu txarritzat jotzen duzu? Eta zein larritasun maila egozten diozu?</i>	Oso larria	Nahiko larria	Ez oso larririk	Ez da tratu txarra	Ed/Ee	GUZTIRA
<b>Sexu harremanak izatera behartzea</b>	93	6	1	0	0	100
<b>Etxetik irtetea debekatzea</b>	82	14	2	1	1	100
<b>Mehatxatzea</b>	81	18	1	0	0	100
<b>Mespretxuak egitea</b>	63	32	4	1	0	100
<b>Gauzak erabakitzen ez uztea</b>	50	38	9	2	1	100
<b>Iraintzea</b>	47	38	11	3	1	100
<i>% horizontalak</i>						

Tratu txar modu horietako bakoitza larritzat jotzea nabarmen areagotu da, duela hamabost urteko datuekin alderatuta. Horrek esan nahi du EAEko gazteengan edozein tratu txar larritzat jotzeko eta arbuizatzeko jarreraren bilakaera positiboa izan dela.



Proposatutako egoera bakoitza oso larritzat jotzen dutenen ehunekoa oso igo da, eta, aldiz, egoera horiek tratu txartzat jotzen ez dutenen ehunekoak izugarri jaitsi egin dira. 1997an, % 9k ez zuten tratu txar gisa ikusten bikotekideari mespretxuak egitea edo erabakiak hartzen ez uztea (% 1ek eta % 2k, hurrenez hurren, 2012an). %8k ez zuen tratu txartzat jotzen bikotekideari etxetik irtetea debekatzea edo iraintzea (% 1ek eta % 3k, hurrenez hurren, 2012an).

Gizon eta emakume gazteen artean dauden aldeak aztertuta, zera ikus dezakegu: emakume gehienek uste dutela proposatutako tratu txar mota guztiak oso larriak direla, % 94tik % 52ra bitarteko ehunekoekin. Hain zuzen ere, % 94ren ustez, oso larria da borondatearen aurka sexu-harremanak izatera behartzea eta, % 52ren ustez, iraintzea oso tratu txar larria da.





Kontrako muturrean, EAEko emakume gazteen % 2k ez du tratu txartzat hartzen iraintzea edo erabakirik hartzen ez uztea. %1ek ez dute uste tratu txarra denik bikotekidea etxetik irteten ez uztea.

Ondoriozta daitekeenez, [Emakunde](#)ren eta gainerako herri-administrazioen sentsibilizazio-politikek arrakasta izan badute ere, ezinbestekoa da tolerantzian eta errespetuan oinarritutako harremanak eraikitzen lagunduko diguten berdintasun-politikak garatzea.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**




## EAEko hamar gaztetatik batek musika-tresnaren bat jotzen duela dio

Hori da 2012ko martxoan EAEko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazteri egindako inkesta baten emaitza. Inkesta horretan azken urtean hainbat jarduera artistiko edo kultural egin ote zuten galdetu zitzaaien gazteei. Inkesta hori [Gazteen Euskal Behatokiak](#) diseinatu eta zuzendu zuen, baita orain emaitzak aztertu eta kaleratu ere.

2012an musika-tresnaren bat jotzen dutela dioten EAEko gazteen ehunekoa (% 10,4) bost urte lehenagokoa (% 11,4) baino puntu bat baxuagoa da.

Hala ere, musika-tresnaren bat jotzen duela dioten EAEko 15 urtetik gorako biztanleria osoarena (% 8,1, [2010-2011](#) urteetan) baino handiagoa da gazteen portzentaje hori.



Aurten, 2012an, gehiago dira musika-tresna bat jotzen dutela dioten mutilak gauza bera dioten neskek baino (% 12 eta % 8,7, hurrenez hurren). Orain dela bost urte izandako joera, aldiz, kontrakoa zen, orduan mutilek baino neurri handiagoan baitzioten neskek musika-tresnak jotzen zituztela.

Azkenik, EAEko gazteriaren datuak Espainiako estatu osoko gazteei dagozkienekin konparatuz gero, ikus dezakegu Espainian gehiago direla, % 15,2, hain zuzen ere, azken urtean jarduera artistiko hori egin duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak. Espainiako gazteen datua Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak eman digu.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**



## EAEko mila emakumetatik 7k 2011n genero-indarkeria jasan izana salatu dute


### *Tasa hori EAEko genero-indarkeriaren emakume biktima guztiena halako bi da*

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela-eta, genero-indarkeriaren biktima diren emakume gazteei buruzko datuak aurkeztu ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#), Eusko Jaurlaritzako [Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak](#) emandako datuak oinarri hartuta.

Datu horien arabera, 2011n, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko 1070 emakume genero-indarkeriaren biktima izan ziren. Emakume horiek 1336 salaketa aurkeztu zituzten, emakume beraren eskubideak behin baino gehiagotan urra daitezke eta, beraz, horrek salaketa bat baino gehiago aurkeztea ekar dezake.

Adin-taldeei erreparatzen badiegu, emakume horietako 277, 15 eta 19 urte bitartekoak ziren (% 21); 377, 20 eta 24 urte bitartekoak (% 35); eta 466, 25 eta 29 urte bitartekoak (% 44).

**Genero-indarkeriaren emakume biktimak 2011n, adin-taldean eta lurralde historikoen arabera (zenbaki absolutuak)**




*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak emandako datuak oinarri hartuta*

Lurralde historikoei dagokienez, zera adieraz dezakegu: Araban, 15 eta 29 urte bitarteko 173 gazte izan zirela genero-indakeriaren biktima (% 16); Bizkaian, 585 (% 55); eta 312 Gipuzkoan (%29).

EAEEn, genero-indarkeriaren biktima diren 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen tasa 6,9 izan da 2011n, adin-talde bereko 1000 emakumeko.

Tasa horrek beherakada arina izan du 2009tik (‰ 7,4), Bizkaian egon den jaitsiera handiari esker: 2009an, 13koa zen 1000 emakumeko eta, 2011n, 7,3koa.



EAEko emakume guztiak, aintzat hartuta, adina gorabehera, zera adieraz daiteke: 2011n genero-indarkeriaren 3829 biktima egon ziren. Emakume horiek 4858 salaketa aurkeztu dituzte. Genero-indarkeriaren emakume biktimen tasa orokorra 3,4koa izan da 2011n, hau da, emakume gazteen tasaren erdia.

Genero-indarkeriaren emakume biktima guztien artetik (3829), 2165 Bizkaian bizi dira (% 56), 1136 Gipuzkoan (% 30) eta 528 Araban (% 14).

Datu horiek [Gazteen Euskal Behatokiaren Estatistikak atalean](#) eguneratuta daude, eta bost adierazle berri dituen Emakumeen Aurkako Indarkeria atal berrian aurki daiteke.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**



## Azaroaren 21a, Telebistaren Munduko Eguna

### ***EAEko gazteek hobetsitako telebista saioak serieak eta filmak dira; gero eta gutxiagok ikusten dituzte albiste saioak egunero***


Telebistaren Munduko Eguna dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokitik](#) EAEko gazteek telebistan zer, nola eta zertarako ikusten duten azaldu nahi dugu.

Jarraian aurkeztuko diren datuak [Gazteen Argazkiak 15. Hedabideak](#) izeneko ikerketatik atera ditugu. Ikerketa hori Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak burutu zuen Gazteen Euskal Behatokiarentzat. Datuok 2011ko urrian EAEko 15 eta 29 urte bitarteko 1272 gazteri egindako inkestaren emaitzak dira.

Ikerketa horren arabera, EAEko gazteen % 78k egunero ikusten dute telebista, bi ordu baino gutxiago egunean, batez beste, bai astegunetan baita asteburuetan ere.

Gazteek entretenitzeko ikusten dute telebista (eta horrela diote telebista, neurri handiagoan edo txikiagoan, ikusten duten gazteen % 92k) eta, horretarako, batez ere serieak eta pelikulak aukeratzen dituzte (% 50ek eta % 44k, hurrenez hurren, diote horiek direla beraien saiorik gustukoena).


Hobetsitako saio motan dago gazteen eta 30 urtetik aurrerakoen arteko alderik handiena: gazteen kasuan, % 28k bakarrik diote albistegiak direla gustukoena dituzten bi saio motetatik bat; 29 urtetik gorakoen kasuan, aldiz, portzentaje hori % 63ra igotzen da.



Hori ikusita, ez da harritzekoa telebistan albisteak egunero ikusten dituzten gazteak % 47 izatea, 29 urtetik gorakoen kasuan % 76 diren bitartean.

Gainera, datu horiek aurreko urteetan izandakoekin konparatuz gero, agerian geratzen da EAEko gazteek gero eta gutxiago ikusten dituztela telebistako albistegiak: % 65ek [1998](#)an, % 59k [2006](#)an eta % 47k 2011n.

Jaitsiera hori ez da nabaritzen, ordea, 30 urte eta gehiago dituzten biztanleen artean.



Batzuen eta besteen arteko alde horien azalpena batez ere honetan datza: gazteek neurri handiagoan jotzen dute Internetera egungo gertaerei buruz informatuta egoteko. Galdetu zaienean informaturik egoteko zein hedabide nahiago duten, gazteen % 41ek Internet aukeratu dute; 30 urte eta gehiago dutenen artean, aldiz, % 16k soilik esan du gauza bera.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**



## 2012ko azaroaren 15, Alkoholik gabeko Munduko Eguna


**“Mozkortu al zara gutxienez behin azken hilean?” Gazteen % 48k baietz erantzun dute.**

Alkoholik gabeko Munduko eguna dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) EAEko gazteen alkoholaren kontsumoari buruzko datuak plazaratu nahi ditu.

2012an, ia 15 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiek aitortu dute inkestaren aurreko hilean mozkortu egin zirela (% 48).

Mutilek neskek baino neurri handiagoan aitortu dute mozkortu zirela (% 54 eta % 41, hurrenez hurren).

20 eta 24 urte bitarteko gazteak dira mozkortu zirela gehien aipatu dutenak (% 54); 20 urtetik azpikoaren artean eta 25 urtetik gorakoaren artean, aldiz, portzentajea % 45ekoa da.




Datuok gure kultura baino ez dute isladatzen: gure artean jaia eta ospakizunak beti datoz alkoholaren kontsumoari lotuta, eta tabernak lagunekin elkartzeko erreferentzia-tokiak dira.

Bestalde, ez badiegu noizbehinkako mozkorrei erreparatzen, baizik eta alkoholaren gehiegizko kontsumoari eta arrisku-kontsumoari, ikus daiteke zifrak nabarmen murrizten direla. Osasun eta Kontsumo saileko Drogomenpeketasunen Euskal Behatokiak emandako datuen arabera, 2010ean asteburuetan alkoholaren gehiegizko edo arriskuko kontsumoa (edandako kantitatea kontuan hartuta) egiten zuten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak % 22,4 ziren.

Berriro ere, alkoholaren gehiegizko kontsumo hori pixka bat zabalduago dago gizon gazteen artean (% 25,3), emakume gazteen artean baino (% 19,3).

Dena dela, alkoholaren asteburuetako gehiegizko kontsumoa eta arrisku-kontsumoa dezente jaitsi dira azken urteotan: 2004an % 35,9koa zen eta 2010ean aipatutako % 22,4koa.



Jarraian, ez alkoholaren kontsumoa, baizik eta lotuta ekar dezakeen arrisku-jokaera bat aipatuko dugu. Gazteen Euskal Behatokiaren datuon arabera, 2012an hamar gaztetik batek (% 9k) aitortu du azken hilean kotxea gidatu duela edo bidaiari moduan joan dela kotxeko gidariak baimendutako alkohol-tasa baino handiagoa zeukalarik.

Arrisku-jokabide hori, gazte gutxik betetzen badute ere, neskeen bikoitza da mutilen artean (% 6 eta % 12, hurrenez hurren). Eta lehen bezala, zabalduago dago 20 eta 24 urte bitarteko gazteen artean (% 11), gazteenen (% 7) edota 25 eta 29 urte bitartekoen (% 9) artean baino.

Datuok Gazteen Euskal Behatokiak 2012ko martxoan EAEko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazteei eginiko inkestaren emaitzak dira.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**






## Zientzia Astea 2012

**Zientzietako, Matematiketako eta Teknologiako goi-mailako graduatuen EAEko tasa (% $\circ$  26,6), Europako eta Espainiako batez bestekoen gainetik**

Azaroaren 7tik 11ra **Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren XII. Astea (Zientzia Astea)** ospatuko dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokia](#)k zenbait datu eskaini nahi ditu zientzia eta teknologiaren arloan EAEko gazteek duten goi-mailako prestakuntzari buruz.


Zehazkiago, Zientzietako, Matematiketako eta Teknologiako goi-mailako graduazioa duten 20 eta 29 urte bitarteko biztanleen tasak hartuko ditugu aintzat, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak ([ISEI-IVEI](#)) emanak. Tasa horrek zera adierazten du: 20 eta 29 urte bitarteko zenbat gaztek eskuratu duten hirugarren mailako titulazioa (honako hauek barne hartzen dituena: unibertsitate-irakaskuntza —CINE 5A— nahiz goi-mailako heziketa-zikloak, hau da, CINE 5B, baita doktoretzak eta masterrak ere, CINE 6) Zientzietan, Matematiketan edo Teknologian, adin-talde bereko mila laguneko.

Tasa hori % $\circ$  26,6koa izan da 2009an, eta gorakada nabarmena izan du 2000tik aurrera (urte hartan % $\circ$  20,2koa zen).



EB27ko Estatu batean ere ez dago horren tasa alturik, eta, zer esanik ez, Europako (% $\circ$  14,3) eta Espainiako (% $\circ$  12,5) batez bestekoak baino askoz ere gariagoa da EAEkoa.

**Zientzietan, matematikan eta teknologian  
hirugarren mailako titulua duten 20 eta 29 urte  
bitarteko gazteen tasak Europan 2009an (%)**



\* 2008ko tasa

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ISE-IVEIk kaleratutako datuak oinarri hartuta

Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen arabera, Europako herrialde horiekiko alde hori Lanbide Heziketa Teknologikoak (CINE 5B delakoak) EAEn duen garrantziari zor zaio. Izatez, EAEn, 2008-2009 ikasturtean, CINE 5B delakoan graduatutakoen tasa 20 eta 29 urte bitarteko 11,5 gaztekoa izan da, adin-tarte bereko mila laguneko.

Edozein kasutan, Zientzien, Matematikaren eta Teknologiaren arloko hirugarren mailako graduazioa (CINE 5A, 5B eta 6) duten gazteen tasa orokorrean alde handiak daude, sexuaren arabera: EAEn, 2009an, ‰ 36,9koa da gizonen artean, eta ‰ 15,9koa emakumeen artean. Hau da, 21 puntuko aldea dago gizonen eta emakumeen artean.

Sexuen arteko alde hori antzekoa izan da hainbat urtez. Izan ere, hirugarren mailako graduazioa (CINE 5A, 5B eta 6) duten emakumeen tasak 5 puntu egin du gora, baina baita gizonenak ere (ia zazpi puntuko aldea dago 2000tik 2009ra).

<b>Zientzietan, matematiketan eta teknologian hirugarren mailako graduazioa duten 20 eta 29 urte bitarteko biztanleen tasen bilakaera (2000-2009) EAEn, sexuaren arabera (tasak, milako)</b>			
<b>Urtea</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Emakumeak</b>	<b>Aldea (Gizonak – Emakumeak)</b>
2000	29,1	10,9	18,2
2001	33,7	13,3	20,4
2002	35,3	13,3	22
2003	35,2	14,8	20,4
2004	36,6	15,1	21,5
2005	37,2	15,4	21,8
2006	38	16,5	21,5
2007	38,1	15,8	22,3
2008	38,6	16,6	22
2009	36,9	15,9	21

Gainera, gizonen eta emakumeen artean dagoen alde hori Europako altuena da. Europar Batasunean, gizonen eta emakumeen arteko tasen aldea 2009an 9,8koa izan da, batez beste. Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago EAEn Zientzian eta Teknologian goi-mailako graduazioa eskuratu duten emakumeen tasa Europako garaiena dela.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**




## Gazteek 2012ko hauteskunde autonomikoetan izandako interesak, 2009ko hauteskundeetan izandakoa bikoiztu du

Eusko Jaurlaritzaren [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) kaleratutako datu batzuk aztertu ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#). Datuok urriaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan EAEko gazteek izandako portaerari buruzkoak dira, "[2012ko Hauteskunde Autonomikoen ondoko inkesta](#)" izeneko txostenetik atera dira, eta EAEko 18 eta 29 urte bitarteko gazteei dagokie.

Ikerketa horren emaitzen arabera, EAEko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 55ek interes handia edo nahikoa interes izan zuten urriaren 21ean izandako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan.

Interes horrek bikoiztu egin du [2009ko](#) hauteskunde autonomikoetan adierazitakoa; orduan gazteen % 28k esan baitzuten interes handia edo nahikoa izan zutela.



Are gehiago, azken hauteskunde hauek askotan izan direla solasgai lagunekin diote gazteen %18k.

Gainera, gazteen heren batek (% 34k) arreta handia edo nahikoa jarri zuen hauteskunde-kanpainari buruzko albisteetan (2009an % 22k), baina bakarrik % 5 joan ziren alderdiren baten hauteskunde bilera edo mitinetara.

Alderdiren baten programa edo propaganda irakurri zutela diote % 56k, biztanleria osoaren proportzioaren gaineratik (% 52), eta % 59k hautagairen baten elkarrizketa edo hautagaien arteko debatea ikusi edo irakurri zutela baieztatu dute.

Hori guzti horrekin, gazteen % 20k diote hauteskunde-kanpainan ikusitakoak edo irakurritakoak asko edo nahikoa lagundu ziela beraien botoa erabakitzen.

Urriaren 21ean bozkatu zutela diote elkarrizketatutako lau gaztetik hiruk (% 74) eta gazteen boto gehien lortu zuten aukerak EH Bildu eta EAJ-PNV izan dira (gazteen botoen % 33 eta % 31, hurrenez hurren). Ondoren datoz PSE-EE (% 13), PP (% 3), UPyD (% 2), Ezker Batua (% 2), Ezker Anitza (% 2) eta EQUO (% 2). Gainerako % 12k beste alderdi txikien alde edo boto zuria eman zutela aitortu dute.

Bukatzeko, esan dezakegu hamar gaztetik seik positibotzat jo dituztela hauteskunde hauetako emaitzak.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**

